

# Euskal ekonomiaren bilakaera 2018IVH

2019ko martxoaren 14a

1

**Laburpena**

2

**Euskal ekonomia**

BPGd  
Barne eskaria  
Kanpo sektorea  
Lan-merkatua  
Inflazioa  
Sektore publikoa  
Finantza-sektorea  
Adierazleak

3

**Ingurunea**

4

**Aurreikuspenak**

## 2. Euskal ekonomia 2018IVH, hazkundearen moteltzea

**18IVHn**, EAEko **BPGd-a % 2,4** hazi da (u/u), eta beraz, ekitaldiko hazkundera % 2,8koa izan da (u/u); euskal ekonomiaren bultzadaren galera-mugimendu nabarmena baieztatu da horrela, ekitaldiak eta zikloak aurrera egin ahala, pixkanaka sendotuz joan den fenomeno. Erreferentziazko ingurune hurbilean ere ikus daitekeen joera bat da, hala Espainiako ekonomiak (% 2,44 u/u) nola EBkoak (% 1,1 u/u) ere moteltze argia erakutsi baitute. Litekeena da mugimendu honek 2019an ere jarraipena izatea; **2019rako euskal BPGd-aren aurreikuspena % 2,3ra murriztu da**, eta erreferentziazko inguruneko eremuetarako egindako aurreikuspen murriztaile ia orokorren barruan kokatzen da.

**Barne-eskaria** apaldu egin da (% 2,6), kontsumo-tasa txikiagoen (pribatua eta publikoa) eta **Kapitalaren Eratze Gordinaren (% 4,1)** aurreratze-erritmoa mantentzearen arteko konbinazioagatik; kanpo-sektoreak, bestalde, **Inportazioen (% 0,6)** eta **Esportazioen (% 0,3)** bariazio-tasen uzkuratze handia izan du, eta kanpo-merkatuetan nagusi zen ziurgabetasunaren ondorioz, EAEko hazkunderak -0,2pp egin du atzera.

Sektoreei begiratuta, EAEko oinarrietako bat den **Industria** atzeraldian sartu da (-% 0,2); bestetik, **Zerbitzuak** ere moteltzen hasi dira (% 2,9), baina **Eraikuntzak**, aurreko urteetako mailekin alderatuta, dinamismo handia du oraindik (% 5,6), besteak beste etxebizitzaren merkatuetan nabari den bultzadarengatik. Euskal ekonomiaren produktibitate sektorialean, baina, Industria dago oraindik buruan, eta enpleguan eta BPGd-an daukan pisua % 21 ingurukoa da, hurrenez hurren.



Lan-merkatuaren bilakaera positiboa. PRaren arabera, 18IVHn, **langabezia-tasa** berreskuratzen ari da eta 119.674 langabetu daude, % 10,2raino igo den langabezia-tasarekin, aurreko hiruhileko % 9,5aren ondoren.

Urtarrilean, **KPIaren** bariazio-tasa % 1,0ekoa izan da, aurreko hilean erregistratutakoa baino bi hamarren txikiagoa. **Azpikoaren inflazioaren** urteko tasak hamarren bat egin du behera, % 0,8raino. Osagaiei begiratuta, Etxebizitza eta Komunikazioak osagaiek aurrerapauso handia eman dute ekitaldi honetan, eta murrizketak batez ere Irakaskuntzan eta Elikagaiak eta Edariak osagaietan eman dira.

2018ko abendura arte metatutako **diru-bilketa** 14.981 M. eurokoa izan da, iazko epe berean baino % 3,5 gehiago hazi ondoren.


## 2. Moteltzea 2019ari begira

### EAEko BPGd-aren bariazio-tasa (%)



**18IVHn**, EAEko BPGd-a % **2,4** hazi da (u/u), eta beraz, ekitaldiko hazkundea % 2,8koa izan da (u/u); euskal ekonomiaren **bultzadaren galera**-mugimendu nabarmena baieztatu da horrela, ekitaldiak eta zikloak aurrera egin ahala, pixkanaka sendotuz joan den fenomeno. Erreferentziazko ingurune hurbilean ere ikus daitekeen joera bat da, hala Espainiako ekonomiak (% 2,44 u/u) nola EBkoak (% 1,1 u/u) ere moteltze argia erakutsi baitute. Litekeena da mugimendu honek 2019an ere jarraipena izatea; **2019rako euskal BPGd-aren aurreikuspena % 2,3ra murriztu da**, eta erreferentziazko inguruneko eremuetarako egindako aurreikuspen murriztaile ia orokorren barruan kokatzen da.


## 2. EAE: Barne-eskari gutxiago, inbertsioak eutsita, kanpo-sektorearen uzkurtzearekin



Iturria: Eustat, gure datuak

**18IVHn, EAEko BPGd-ak % 2,4ko urte arteko (u/u) hazkundera izan du. Duela urtebeteko portaerarekin alderatuta, Barne-eskaria apaldu egin da (% 2,6), kontsumo-tasa txikiagoen (pribatua eta publikoa) eta Kapitalaren Eratze Gordinaren (% 4,1) aurreratze-erritmoa mantentzearen arteko konbinazioagatik; kanpo-sektoreak, bestalde, Inportazioen (% 0,6) eta Esportazioen (% 0,3) bariazio-tasen uzkurtze handia izan du, eta kanpo-merkatuetan nagusi zen ziurgabetasunaren ondorioz, EAEko hazkunderak -0,2pp egin du atzera.**


## 2. Industriaren alerta negatiboa; intentsitatea Eraikuntzan



Iturria: Eustat, gure datuak

Sektoreei begiratuta, EAEko oinarrietako bat den **Industria** atzeraldian sartu da (-% 0,2), datozen hiruhilekoetan berriro jaitsierak gerta daitezkeen seinale; bestetik, **Zerbitzuak** ere moteltzen hasi dira (% 2,9), baina **Eraikuntzak**, aurreko urteetako mailekin alderatuta, dinamismo handia du oraindik (% 5,6), besteak beste etxebizitzaren merkatuetan nabari den bultzadarengatik.


## 2. Barne-eskaria apaldu egin da, inbertsioaren intentsitatea gorabehera



PIB Trimestral (demanda)	2017	2018			
	IV	I	II	III	IV
GASTO EN CONSUMO FINAL	2,8	2,8	2,5	2,0	2,2
-Gasto en consumo final de los hogares e ISFLSH	2,8	2,9	2,6	2,3	2,6
-Gasto en consumo final de las AAPP	2,9	2,6	2,0	1,2	0,8
FORMACIÓN BRUTA DE CAPITAL	3,8	3,7	4,8	4,0	4,1
-Formación Bruta de Capital Fijo en Bienes de Equipo	4,6	4,8	6,1	2,9	2,1
-Resto de Formación Bruta de Capital	3,4	3,0	4,0	4,6	5,2
DEMANDA INTERNA	3,1	3,0	3,0	2,5	2,6
EXPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	4,8	6,7	2,9	2,2	0,3
IMPORTACIONES DE BIENES Y SERVICIOS	4,8	6,4	3,1	2,1	0,6
<b>PRODUCTO INTERIOR BRUTO a precios de mercado</b>	<b>3,0</b>	<b>3,1</b>	<b>2,9</b>	<b>2,6</b>	<b>2,4</b>

**Barne-eskariak** iazko epealdi berean baino ekarpen apalagoa egin du (% 2,6), **Azken kontsumoan** eman den epeltzearen ondorioz (% 2,2), batez ere kontsumo publikoaren arloan, eta **Kapitalaren Eratze Gordinean** ikus daitezkeen inbertsio-tasa handiagoen ondorioz (% 4,1)

## 2. Kanpo-sektorea, nazioarteko gerra komertzialen eragin mende







Iturria: Eustat

**Kanpo-sektoreak** intentsitatea galdu du bi osagaietan; **Esportazioek** % **0,3** besterik ez dute gora egin, eta **Inportazioek** % **0,6**. Nazioarteko ziurgabetasuna ez da desagertzen, hura sortzen duten faktore nagusiek bertan dirautelako (Brexitaren amaierari buruzko argibiderik eza, Txinaren eta AEBen arteko tentsio komertzialak, EBko herrialde nagusien zailtasunak...).



## 2. Industriak eta Eraikuntzak protagonismoari eutsi diote, baina kontrako norabidean




Iturria: Eustat


**Industria** atzeraldian sartu da (-% 0,2), **Zerbitzuek** egonkortasunari eutsi dioten bitartean (% 2,9); **Eraikuntzaren** aurrerapena oso nabarmena izan da (% 5,6). Lehen sektoreak tonua berreskuratu du, baina ohikoa duen hegazkortasun-bidearen barruan.

## 2. Zerbitzuek BPGd-ari egin dioten ekarpenak gora egin du, eta Industriaren ekarpenak, behera.

### Estructura y Variación PIB IVT18





### Aportación al PIB IVT18 (pp)



Iturria: Eustat, gure datuak

Duela urtebete (hau da, 17IVHn), **Zerbitzuen** sektorea EAEko BPGd-aren % **62,0** zen, eta termino errealetan % **2,9** hazi ondoren, BPGd-ari ekarpen handiena egiten dion sektorea da, **1,8 pp**-rekin. **Eraikuntzak**, % **5,3**ko pisuarekin, % **5,6**ko hazkundearekin eta **0,3 pp**-ko ekarpenarekin, bigarren lekua kendu dio **Industriari**, azken honek %**0**ko ekarpena egin baitio EAEko BPGd-ari.


## 2. Industriak produktibitateari eutsi dio




Iturria: Kontu ekonomikoak. Eustat. Gure datuak

BPGd-aren sektorekako osaera eta enpleguaren egitura sektoriala alderatzen baditugu, euskal ekonomiaren **produktibitate** sektoriala kalkulatuko dugu, **18IVHn Industria buru duena**, BPGd-ari eta enpleguari egindako ekarpena % **21** ingurukoa baita, hurrenez hurren.

## 2. Tonu positiboak ez du etenik lan-merkatuan



17IVHn baino 18.505 langile gehiago.




Iturria: Kontu ekonomikoak. Eustat.

EAEko Kontu Ekonomikoen arabera, **18IVHko okupazioa 964.500 enplegetatik gora dago**, azken urtean **% 2,0 gora egin** ondoren. Termino absolutuetan, **duela urtebete baino 18.505 langile gehiago dago**. Zerbitzuen sektoreak 12.686 enplegu berri sortu ditu, Industriak 3.039 pertsona gehiagori eman die lana eta Eraikuntzak beste 2.386 langileri. **PR**aren arabera, 18IVHn, **langabezia-tasa** berreskuratzen ari da eta 119.674 langabetu daude, **% 10,2**raino igo den langabezia-tasarekin, aurreko hiruhileko % 9,5aren ondoren.


## 2. Etxebizitzak eta Komunikazioek gora bultzatu dituzte prezioak

### Inflazioa sektoreka

EAEko bilakaera



Inflazioaren bilakaera



Iturria: INE


Urtarrilean, **KPI**aren bariazio-tasa % **1,0**ekoa izan da, aurreko hilean erregistratutakoa baino bi hamarren txikiagoa. **Azpikoaren inflazioaren** urteko tasak hamarren bat egin du behera, % **0,8**raino. Osagaiei begiratuta, Etxebizitza eta Komunikazioak osagaiek aurrerapauso handia eman dute ekitaldi honetan, eta murrizketak batez ere Irakaskuntzan eta Elikagaiak eta Edariak osagaietan eman dira.




## 2. Kreditu pribatuak eta gordailu pribatuek apur bat gora egin dute.

Txostenaren itxieran BdEk argitaratutako azken datuak: 2018ko iraila

### S. Pribatuaren kredituak



### S. Pribatuaren gordailuak




**Sektore pribatuaren kreditua** (% 0,4 EAEn eta -% 3,3 Espainian) indarrean dauden eragiketen amortizazioen eraginpean dago oraindik, eta horrek masa orokorraren hazkundera moteltzen du.

**Sektore pribatuaren gordailuek** apur bat gora egin dute EAEn (% 3,9), eta Espainiako gordailu pribatuen saldoen hazkundera apala nabarmen gaitu dute.

## 2. Gordiluak kreditu pribatuak baino gehiago hazi dira

Txostenaren itxieran BdEk argitaratutako azken datuak: 2018ko iraila

### S. Pribatuaren Kredituen eta Gordailuen bariazioaren %





Iturria: BdE

Irailean, **sektore pribatuaren gordailuen saldoa (77.878 M€)** kreditu pribatuaren saldoaren gainera zegoen (**63.371 M€**), 12.906 M€ gainera hain zuzen ere. Kreditu pribatuak gordailu pribatuetan duten pisua % 83,2an kokatu da EAEn (% 100,2 Espainian).



## 2. Etxebizitzaren hipotekak: askotariko portaerak




Iturria: INE

**Abenduan, hipoteken** merkatuak askotariko portaerak izan ditu, merkatuaren arabera. Espainian intentsitatea galdu du (% 0,9 zenbatekoan eta % 10,42 eragiketa kopuruan) eta EAEn asko hazi da (% 20,1 zenbatekoan eta % 54 eragiketa kopuruan).

### 3. Berankortasuna. Hobekuntza jarraitua





#### Berankortasunaren eta estalduraren bilakaera




**Finantza-sistemaren OSR kredituaren berankortasun-tasa** -0,19 portzentajezko puntu (pp) murriztu da azken hilean, eta % 5,82an dago orain. **Finantza-sistemaren OSR kredituaren estaldura-tasa**, aldiz, azken hilean -1,63 pp murriztu da, eta % **60,91**n dago orain.

## 2. Euskal ekonomia uneko adierazleen arabera...

<u>MENSUALES</u>	jun-18	sep-18	dic-18	ene-19
<a href="#">IPI (Eustat)</a>	2,1	2,0	-6,0	0,7
<a href="#">Consumo de gasolina, gasóleo y fuelóleo™ (Cores)</a>	9,0	0,0	-0,4	
<a href="#">Matriculación de turismos (Ikerbide 1.25.3)</a>	8,1	-12,6	-11,7	-14,4
<a href="#">Hipotecas. Número (INE)</a>	-9,3	5,5	54,0	
<a href="#">Hipotecas. Importe (INE)</a>	-16,4	10,1	20,1	
<a href="#">Compraventa viviendas</a>	-6,9	1,6	16,1	
<a href="#">Recaudación DDFF: Total impuestos (GV)</a>	3,3	4,8	3,5	1,5



### 3. Euskal ekonomia. 2019ko aurreikuspenak Etengabeko dezelarazioa



Iturria: INE, Eustat eta gure datuak

Euskal ekonomia lurreratze suabe baina etengabean dago, espainiar ekonomiarekiko sinkronizazio maila altuan, nahiz eta erregistro hobek izan dituen 2018aren amaieran. 2019rako BPGd-aren aurreikuspena % 2,3ra jaitsi da ekitaldi osorako (-0,55 pp itxierako datuarekin alderatuta), eta Espainiako ekonomiaren hazkunde aurreikuspena berriz, % 2,2an kokatuta dago ekitaldi osorako. Murrizketa mugimendu hori luzatu egingo da 2020an.

### 3. Euskal ekonomia. Aurreikuspenak

<b>Euskadi</b>		<b>PIB</b>	
<b>Panel de Previsiones</b>		<b>2018</b>	<b>2019</b>
<b>Confebask</b>	dic.-18	2,5	
<b>Funcas</b>	nov.-18	2,7	
<b>Hispalink (VAB)</b>	dic.-18	2,1	2,0
<b>BBVA</b>	feb.-19	2,7	2,3
<b>CEPREDE</b>	feb.-19	1,8	1,8
<b>Gobierno Vasco</b>	feb.-19	2,8	2,3
<b>Media</b>		<b>2,4</b>	<b>2,1</b>
<i>Máximo</i>		<i>2,8</i>	<i>2,3</i>
<i>Mínimo</i>		<i>1,8</i>	<i>1,8</i>

*Fuente: DEP-febr.2019*

## 4. Aurreikuspenek beherantz egin dute berriro

### Munduko ekonomiaren aukerak, NDFren aurreikuspenen berrikuspena 2019ko urtarrila

	2018	2019	2020
<b>Producto Mundial</b>	3,7	3,5	3,6
<b>Economías avanzadas</b>	2,3	2,0	1,7
Estados Unidos	2,9	2,5	1,8
Zona del euro	1,8	1,6	1,7
Alemania	1,5	1,3	1,6
Francia	1,5	1,5	1,6
Italia	1,0	0,6	0,9
España	2,5	2,2	1,9
Japón	0,9	1,1	0,5
Reino Unido	1,4	1,5	1,6
<b>Economías emergentes y en desarrollo</b>	4,6	4,5	4,9

[NDFren aurreikuspenak 2019ko urtarrilerako](#)

Urtarrilean NDFk munduko hazkundearen inguruan egin zituen aurreikuspenak berrikusi ondoren, **hedapenaren ahultzea** berretsi da: hazkundera % **3,7**koa izan zen 2018an, eta 2019 eta 2020rako proiektzioak % **3,5**ekoak eta % **3,6**koak dira, hurrenez hurren (urriko azken iragarpenak baino 0,2 eta 0,1 pp gutxiago).


## 4. Beheranzko zuzenketa Eurogunean. Espainia, berriz, egonko Europan ziurgabetasuna nagusi den honetan

### Espainiako ekonomiaren aldagai makroen proiektzioak

	2017	2018	2019	2020	2021
PIB	3,0	2,5	2,2	1,9	1,7
Consumo privado	2,5	2,4	1,9	1,5	1,3
Consumo público	1,9	2,1	1,6	1,2	1,2
Formación bruta de capital fijo	4,8	6,2	4,7	3,6	2,7
Inversión en bienes de equipo	5,7	7,8	5,9	3,8	3,0
Inversión en construcción	4,6	6,1	4,5	3,7	2,8
Exportación de bienes y servicios	5,2	1,8	3,4	4,0	3,8
Importación de bienes y servicios	5,6	3,8	4,1	4,1	3,8
Demanda nacional (contribución al crecimiento)	2,9	3,1	2,4	1,9	1,6
Demanda exterior neta (contribución al crecimiento)	0,1	-0,6	-0,2	0,0	0,1

### BPGd-aren hazkundera Espainian


BPGd: % 2,4 (u/u) 2018IVHn



Nazioarteko merkataritzari oso lotuta dagoen Europako ekonomiak % 1,6ko hazkundera aurreikusi du **Eurogunerako**. Hauexek izan dira, hein handi batean, Europako zuzenketa hori eragin duten alderdiak, prezioen hazkunde apalago bat ere ekarri dutenak: kanpoko merkatuen oso mendekoa den industria alemaniarraren geldialdia, Frantziako *gilet jaunes* delakoen erreboltak, Italiaren atzeraldia eta Brexitaren krisiaren luzapena.

Espainiako ekonomiaren **hazkunde-tasa** ere **moteldu** egin da, % 2,4ko hazkundearekin. Hala eta guztiz ere, Eurogunean nagusi da oraindik, AEBek eta Txinak elkarri jarritako murrizketen ondorioz munduko eragiketa komertzialen dinamismoak behera egin duen honetan. Egoera horrek luzaroan iraunez gero, gainera, eragina izan dezake bi potentzien hazkundera. Dinamika hori da, hain zuzen ere, aurreikuspenen beheranzko zuzenketa luzapenaren arrazoia.

## 4. Aurreikuspenak. Beheranzko joera



Iturria: Funcas

2018an BPGd-a % **2,4** hazi ondoren (INEren arabera), Funcas-ek % **2,2**an mantendu du **2019**rako aurreikuspena, kanpo-sektorearen beherakada handiak larriagotutako arestiko dezelerazioa luzatuz. Izan ere, hazkundeari 0,4 op kendu baitio, kanpoko hainbat merkaturen ezegonkortasunaren ondorioz.

Eskari nazionala, bestalde, epeldu egin da, eragileen konfiantzaren gainbeherarekin lotutako kontsumoak indarra galdu duelako. Inflazioaren aurreikuspenak beherantz berrikusi dira, % 1,5eraino, 2018an lortutako % 1,7ko batezbestekoaren ostean. Langabezia-tasak ere beheranzko bidea egiten jarraitu du, ekonomiaren portaera erantsiaren ondorioz, 2019rako aurreikusitako % 13,8raino. Labur esanda, Espainiako ekonomiak egonkor eutsiko dio 2019an, dezelerazioa orokorra den testuinguruarekin bat eginez.



## 4. Aurreikuspenen taula. Espainia

Última actualización

ene-19

**España**

Panel de Previsiones	PIB		IPC		PARO (EPA)	
	2018	2019	2018	2019	2018	2019
<b>AFI</b>	2,6	2,3	1,7	1,2	15,3	14,1
<b>BBVA</b>	2,6	2,4	1,8	1,6	15,3	13,7
<b>Bankia</b>	2,5	2,2	1,7	1,3	15,4	13,9
<b>Caixabank</b>	2,5	2,1	1,7	1,8	15,3	13,6
<b>CEEM</b>	2,6	2,1	1,8	1,5	15,2	13,7
<b>CEPREDE</b>	2,6	2,2	1,6	1,4	15,3	13,7
<b>CEOE</b>	2,5	2,2	1,7	1,1	15,3	13,6
<b>Funcas</b>	2,5	2,1	1,7	1,1	15,3	13,9
<b>ICAE-UCM</b>	2,5	2,2	1,8	1,5	15,3	13,6
<b>IEE</b>	2,6	2,1	1,7	1,6	15,3	14,2
<b>Intermoney</b>	2,5	2,1	1,7	1,5	15,3	14,0
<b>CONSENSO (media)</b>	<b>2,5</b>	<b>2,2</b>	<b>1,7</b>	<b>1,5</b>	<b>15,3</b>	<b>13,8</b>
Máximo	2,6	2,4	1,8	1,8	15,4	14,2
Mínimo	2,5	2,0	1,6	1,1	14,9	13,0
<b>PRO MEMORIA</b>						
Gobierno (enero 19)	2,6	2,2	-	-	15,5	13,8
BdE (diciembre 18)	2,5	2,2	1,8	1,6	15,3	14,3
CE (noviembre 18)	2,6	2,2	1,8	1,7	15,6	14,4
FMI (enero 19)	2,5	2,2	-	-	-	-
OCDE (noviembre 18)	2,6	2,2	1,9	1,9	15,3	13,8

Fuente: funcas

# Euskal ekonomiaren bilakaera 2018IVH

2019ko martxoaren 14a